



ORIOKOUNDALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2011ko irailaren 29a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:45

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Ekiñe Saizar Larrañaga, Juan Vicente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portullarrume, Miriam Uranga Egurza eta Jokin Izagirre Zabala.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) eta Eugenio Cotado Iturain zinegotziak (EAJ) ez dute bilkuran parte hartu, herritik kanpo daudelako.

Gai-zerrenda

- 1.- Alkateak hartu dituen hainbat erabakiren berri ematea: Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzea eta Tokiko Gobernu Batzarrari eskumenak delegatzea.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udalaren laugarren ordezkaria izendatzea UEMArako.



- 3.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, honako gaiari buruz: Oriko Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinen Jabeen Komunitatearenak diren lurren lagapena Oriko Udalari.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 9/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago.
- 5.- Onartzea, egoki bada, oinarriak, Oriko AIU3 eremuan —Hondartza— Udalak sustatutako 4 etxebizitza tasatu adjudikatzeko eta Oriko Kale Nagusian sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu adjudikatzeko.
- 6.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Oriko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzaren 9. artikulua aldaketari.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ALKATEAK HARTU DITUEN HAINBAT ERABAKIREN BERRI EMATEA: TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEAK IZENDATZEA ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRARI ESKUMENAK DELEGATZEA.

Idazkariak udalbatzarrari adierazten dio alkateak honako erabakiak hartu dituela Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapenari buruz (hitzez hitz jasota):

353/2011 ALKATEAREN EBAZPENA

Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzea

*Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.1 artikulua eta Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren 41.3 eta 52.2 artikuluek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, **EBAZTEN DUT:***

Lehena.- Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea AMAIA DORRONSORO PORTULARRUME Udalean ordezkari dautan BILDU-EUSKO ALKARTASUNA (EA)-ALTERNATIBA ERAIKITZEN talde politikoko zinegotzia, indarrean dauden arauak ematen dizkieten ahalmen eta eskubideekin.

Bigarrena.- Ebazpen honen berri ematea zinegotzi interesatuari eta udalbatzarrari, egiten duen lehen osoko bilkuran, eta ebazpenaren laburpena argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hirugarrena.- Ebazpen hau alkatetzako ebazpen-liburuan transkribatuko da eta ebazpen-dataren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.



Orio, 2011ko irailaren 20a.

Alkatea. Beñat Solaberrieta Albizu.

354/2011 ALKATEAREN EBAZPENA

Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzea

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.1 artikulua eta Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren 41.3 eta 52.2 artikuluek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, **EBAZTEN DUT:**

Lehena.- Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea MIRIAM URANGA EGURZA Udalean ordezkaritza daukan ORAIN talde politikoko zinegotzia, indarrean dauden arauak ematen dizkioten ahalmen eta eskubideekin.

Bigarrena.- Ebazpen honen berri ematea zinegotzi interesatuari eta udalbatzarrari, egiten duen lehen osoko bilkuran, eta ebazpenaren laburpena argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hirugarrena.- Ebazpen hau alkatetzako ebazpen-liburuan transkribatuko da eta ebazpen-dataren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Orio, 2011ko irailaren 20a.

Alkatea. Beñat Solaberrieta Albizu.

355/2011 ALKATEAREN EBAZPENA

Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzea

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.1 artikulua eta Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren 41.3 eta 52.2 artikuluek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, **EBAZTEN DUT:**

Lehena.- Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea JOKIN IZAGIRRE ZABALA Udalean ordezkaritza daukan ORAIN talde politikoko zinegotzia, indarrean dauden arauak ematen dizkioten ahalmen eta eskubideekin.

Bigarrena.- Ebazpen honen berri ematea zinegotzi interesatuari eta udalbatzarrari, egiten duen lehen osoko bilkuran, eta ebazpenaren laburpena argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hirugarrena.- Ebazpen hau alkatetzako ebazpen-liburuan transkribatuko da eta ebazpen-dataren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Orio, 2011ko irailaren 20a.



Alkatea. Beñat Solaberrieta Albizu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

Idazkariak udalbatzarrari adierazten dio alkateak honako erabakiak hartu dituela Tokiko Gobernu Batzarraren alde bere ahalmen batzuk delegatzeari buruz (hitzez hitz jasota)

ALKATETZAREN AHALMENAK DELEGATZEARI BURUZKO 356/2011 DEKRETUA

Alkateak Tokiko Gobernu Batzarraren alde

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 23.2b) artikuluek eta Toki Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren 43.1 eta 2 artikuluek ematen dizkידaten ahalmenak erabiliz,
EBAZTEN DUT:

1.- Tokiko Gobernu Batzarrari ondorengo ahalmenak DELEGATZEA:

** Lan-Eskaintza Publikoa onartzea, Udalbatzak onartutako aurrekontuarekin eta plantillarekin bat; langileak hautatzeko frogen oinarriak eta lanpostuak betetzeko lehiaketenak onartzea; eta finkoak eta periodikoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea. (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1-g artikulua).*

** Planeamendu orokorra garatzeko espresuki Udalbatzaren eskumenekoak ez diren planeamenduko tresnak onartzea, eta baita hirigintzako kudeaketarako eta urbanizazio-proiektuetarako tresnak. (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1-j artikulua).*

** Alkatearen autoritateari ez obeditzeagatik edo udal-ordenantzak hausteagatik zehapenak ezartzea, ahalmen hori beste organo batzuei aitortuta ez badago. (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1-n artikulua).*

** Obra eta zerbitzuetarako proiektuak onartzea, horiek kontratatzeke edo uzteke gaitasuna badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude. (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1-o artikulua).*

** Obra nagusietarako lizentziak ematea, baldin eta arloko legeek horretarako eskumena ez badiote berariaz Osoko Bilkurari edo Tokiko Gobernu Batzarrari ematen. (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1-q artikulua).*

2.- Delegatutako gai horiei buruz Tokiko Gobernu Batzarrak hartzen dituen erabakietan, espresuki jasoko da delegazioarena eta erabaki horiek alkateak delegatu gabeko gaiei buruz hartzen dituen bestelako erabakien balio bera izango dute.



3.- Delegazio honen denbora-tartea udalbatzar honen aginte aldiari mugatzen zaio; hala ere, delegazio horiek aldatu edo ezeztatu daitezke epe hori amaitu baino lehen, alde zurretik baldintza formalak beteta.

4.- Dekretu honen berri Tokiko Gobernu Batzarrari ematea. Udalbatzarrari ere honen berri ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki taulan honen laburpena argitaratzea.

5.- Ebazpen hau alkatetzako dekretu-liburuan transkribatuko da eta ebazpen-dataren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Orio, 2011ko irailaren 20a.

Alkatea. Beñat Solaberrieta Albizu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN LAUGARREN ORDEZKARIA IZENDATZEA UEMARAKO.

Udalbatzarrak alkatearen proposamenaren berri jasotzen du. Alkateak proposatzen du Jokin Izagirre Zabala zinegotzia (Orain) izatea Orioko Udalaren laugarren ordezkaria UEMArako (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitaterako).

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela, bilkura honetan bertan jakin dutelako zein zen alkatearen proposamena. Hori dela eta, harridura erakusten du eta alkateari eskatzen dio, aurrerantzean, horrelako proposamenak garaiz jakinarazteko udalbatzarra osatzen duten taldeei.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Jon Redondo zinegotziak adierazitakoa ikusita, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoroko (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

Jokin Izagirre Zabala zinegotzia (Orain) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren laugarren ordezkari UEMArako (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitaterako).

3.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, HONAKO GAIARI BURUZ: ORIOKO ANTXIOLA KALEKO 5, 7 ETA 9 ZENBAKIDUN ERAIKINEN JABEEN KOMUNITATEAREN DIREN LURREN LAGAPENA ORIOKO UDALARI.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinen jabeen komunitateek beren jabetzapeko 494,14 m²-ko lur partzela bat lagapenean hartzeko eskaera egin diote Udalari.

Eskari hau berriro ekarri da udalbatzarrera, Bildu eta Orain talde politikoetako zinegotziek nahi gabeko akatsa egin zutelako udalbatzarrak egindako azken ohiko bilkuran, 2011ko uztailaren 28an: beren kontrako botoekin atzera bota zuten Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamena eta, beraz, ez zen onartu goian aipatutako lurren lagapena; baina Bildu eta Orain talde politikoen asmoa ez zen hori, baizik eta, guztiz bestela, lurren lagapena onartzea, udal arkitektoak 2011ko uztailaren 27ko txostenean seinalatutako baldintzak betez gero.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko uztailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- **ONARTZEA** Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinetako jabeen komunitateek Udalari egin dioten eskaera, beren jabetzapeko 494,14 m²-ko lur partzela bat lagapenean hartzeko, honako **BALDINTZA** honekin: jabeen komunitate horiek honako lanak egin beharko dituzte, alde zuzenetik: dauden egiturazko kalteak konpondu, azaleko uren bilketa behar bezala bideratu eta hondatutako zoladurak konpondu.

2.- Antxiola kaleko 5, 7 eta 9 zenbakidun eraikinetako jabeen komunitateek ez badute Udalak jarritako eta goian jasotako baldintza hori betetzen, udalbatzarraren erabaki hau bertan behera geratuko da, indarrik gabe.

4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 9/2011 KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 90.000,- euroko zenbatekoa du.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela, 2011ko irailaren 26ko Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzailean egin zuen bezala, kreditua aldatzeko espediente horretan ez delako jasotzen inolako diru-partidarik Zaragueta eskolan obra zibilak egiteko. Alkateak erantzuten dio, esanez espedientearen ez dela jaso inolako diru-partidarik Zaragueta eskolan obrak egiteko, eskolako zuzendaritzak adierazi diolako ez dutela behar hasieran aurreikusitakoa baino laguntza gehiagorik.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko irailaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA**



BIDEZ [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** 9/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 90.000 euroko zenbatekoa du.

2.- **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–kontu-hartzaitza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN 9. ARTIKULUAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Aldaketa-proposamena etxebizitza tasatuen adjudikazioan interesa dutenek bete behar duten erroldatze-epeen baldintzari buruzkoa da. Gaur egun indarrean dagoen udal ordenantzaren 9. artikulua honela dio, hitzez hitz:

Titular izango direnetatik gutxienez batek herrian erroldatuta behar du, etenik gabe, oinarri hauek onartu baino 10 urte lehenagotik; edo, etenik egon bada, 15 urtetan, baldin eta, betiere, data horretan erroldatuta badago.



Proposatzen den aldaketa eginda, honela geratuko litzateke udal ordenantzaren 9. artikulua, hitzez hitz:

Titular izango direnetatik gutxienez batek herrian erroldatuta behar du, etenik gabe, oinarri hauek onartu baino 5 urte lehenagotik; edo, etenik egon bada, 7 urtetan, baldin eta, betiere, data horretan erroldatuta badago.

Nolanahi ere, baldintza horiek betetzen dituzten eskatzaileek ez badute eskaintza asetzen, Udalak aukera izango du gelditzen diren udal etxebizitza tasatuak bi baldintza horiek betetzen ez dituzten eskatzaileei adjudikatzeko; azken kasu horretan, lehentasuna izango dute oinarriak onartzen direnean erroldatuta daudenek.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoa ez dagoela ados udal ordenantza horren 9. artikulua aldatzeko proposamenarekin, 2011ko irailaren 22ko Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak planteatutako terminoetan; adierazten du EAJk honako hau proposatzen duela:

- Hasteko, proposatzen dute 9. artikulua horren gaur egungo idazketari eustea; hau da:

Titular izango direnetatik gutxienez batek herrian erroldatuta behar du, etenik gabe, oinarri hauek onartu baino 10 urte lehenagotik; edo, etenik egon bada, 15 urtetan, baldin eta, betiere, data horretan erroldatuta badago.

- Baldintza nagusi hori betetzen duten eskatzaileen kopurua ez bada nahikoa etxebizitzaren eskaintza asetzeko, bigarren baldintza hau aplikatuko da:

Titular izango direnetatik gutxienez batek herrian erroldatuta behar du, etenik gabe, oinarri hauek onartu baino 5 urte lehenagotik; edo, etenik egon bada, 7 urtetan, baldin eta, betiere, data horretan erroldatuta badago.

- Azkenik, aurreko bi baldintza horiek betetzen dituzten eskatzaileen kopurua ez bada nahikoa etxebizitzaren eskaintza asetzeko, honako irizpidea aplikatuko da:

Nolanahi ere, baldintza horiek betetzen dituzten eskatzaileek ez badute eskaintza asetzen, Udalak aukera izango du gelditzen diren udal etxebizitza tasatuak bi baldintza horiek betetzen ez dituzten eskatzaileei adjudikatzeko; azken kasu horretan, lehentasuna izango dute oinarriak onartzen direnean erroldatuta daudenek.

Jon Redondo zinegotziak adierazten du bozkatu egin behar dela Orioko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzaren 9. artikulua aldatzeko EAJk egin duen proposamena, goian jasota dagoen bezala. Alkateak erantzuten dio ezetz, bozkatu behar dena, indarrean dauden arauen arabera, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko irailaren 22an emandako diktamena dela.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoaren argitan, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko irailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Etxeberria (EAJ), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

EZ ONARTZEA Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko irailaren 22an Orioko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzaren 9. artikulua aldaketari buruz emandako diktamena.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkateordeak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, udal ordenantza horren 9. artikulua aldatzeko EAJk bilkura honetan azaldu duen proposamena arretaz aztertu nahi duelako.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, OINARRIAK, ORIOKO AIU3 EREMUAN —HONDARTZA— UDALAK SUSTATUTAKO 4 ETXEBIZITZA TASATU ADJUDIKATZEKO ETA ORIOKO KALE NAGUSIAN SUSTAPEN PRIBATUKO 25 UDAL ETXEBIZITZA TASATU ADJUDIKATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Bertaratutako udalbatzakideen proposamenez, bozketa egiten da Orioko AIU3 Hondartza eremuan Udalak sustatutako 4 etxebizitza tasatu adjudikatzearen komenientziari buruz, eta onartu egiten da honako emaitzarekin: aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua beraz; kontrako botoak: Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **BI KONTRAKO BOTO**.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orainen izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela eta hala egiten segituko duela aurrerantzean, harik eta Orioko Udalak babes ofizialeko eta errenta sozialeko etxebizitzak sustatzeko politika egiten ez duen arte.

Ondoren, bertaratutako udalbatzakideen proposamenez, bozketa egiten da Orioko Kale Nagusian sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu adjudikatzearen komenientziari buruz, eta onartu egiten da honako emaitzarekin: aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Etxeberria (EAJ), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**.

Emandako botoa azaltzeko, alkateak hartzen du hitza, Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, honako arrazoiagatik: bat datoz



Kale Nagusiko sustapen pribatuko 23 etxebizitza adjudikatzearekin, baina ez 25, uste dutelako Udalak ez lituzkeela beste bi etxebizitza horiek adjudikatu beharko, baizik eta helburu sozialetarako erabili.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza eta, Orainen izenean, adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa eman duela honako baldintzarekin: Orioko Udalak bere jabetzapeko bi etxebizitzak besterentzeagatik lortutako diru-sarrerak ludoteka bat egiten gastatu behar direla eta, hori egin eta gero geratzen den dirua parke publiko estali bat egiteko lanak finantzatzeko erabili behar dela.

Ondorioz, egindako bozketak ikusita eta udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzaren 9. artikulua aldatzeko hartutako erabakia ikusita, udalbatzarrak **ERABAKITZEN DU ONARTZEA** oinarriak Orioko AIU3 eremuan —Hondartza— Udalak sustatutako 4 etxebizitza tasatu adjudikatzeko eta Orioko Kale Nagusian sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu adjudikatzeko, honako salbuespenarekin: ez dira onartu interesatuei eska dakizkiekeen bizilekuari buruzko baldintzak, eta horiek hurrengo udalbatzar batean onartuko dira.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du Orioko ostalaritza sektoreko jende dezenteek jo duela bere talde politikoarengana eta kezka agertu diotela aurten ez delako Txuleta eguna antolatuko eta horrek kontrako eragin ekonomikoa izan dezakeelako. Hori dela eta, Noemik dio herriko elkarte gastronomiko batek Txuleta eguna antolatzeko asmoa agertu duela eta bere talde politikoak bihar bertan emango diola sarrera eskabideari Udalaren erregistroan.

Alkateak hartzen du hitza, Noemi Ostolaza zinegotziari erantzuteko, eta adierazten du Bildu Txuleta eguna egitearen kontra agertu dela honako arrazoiengatik:

- Txuleta egunak ez dauka zerikusirik Orion antolatzen diren beste jaiekin; guztiz bestelakoa da.
- 'Orio estilora' marka Bisiguaren egunarekin lotuta dago, baina ez Txuleta egunarekin edota Erreboiloaren egunarekin. Hau da, Orioko herriarekin eta bere estiloarekin lotzen dena Bisiguaren eguna da, eta ez beste festa horiek.
- Berengana Orioko ostalari bakar batek jo du, Txuleta eguna egin beharko litzatekeela esatera.
- Orion, urtero, gutxienez hamahiru festa ospatzen dira.
- Bere talde politikoak zalantzan jartzen du Txuleta eguna benetan autofinantzatzen ote den.



- Goiko arrazoi horiek guztiak direla eta, bere talde politikoak apustu garbia egiten du Bisiguaren eguna ospatzearen alde.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta gogorarazten du bere talde politikoa oraindik zain dagoela joan den uztailaren bukaeran eskatu zituen bi txosten juridikoak jasotzeko. Idazkariak erantzuten dio, esanez ahalik eta lasterren emango dizkiela.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du behar bezalako erantzuna eman diela EAJk udal informazioa eskatuz aurkeztu dituen eskabide guztiei.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,